




GIL 120 Ataungo domoa



Ataungo domoaren panoramika.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: $43^{\circ} 0' 1,99''$
Long.: $2^{\circ} 10' 15,19''$ W

- **UTM koordenatuak:**

X: 567.579,21 m
Y: 4.761.209,53 m



Nola iritsi

N-1 errepidetik, Beasain parean, hartu Ataunerako irteera, eta joan San Martin auzoraino. Han, hartu iparralderantz ateratzen den pista, eta igo haranaren ezkerreko hegaletik, altuera pixka bat hartu arte. Handik hasten da ikusten eskala handiko egitura hori.



Kareharri urgondarren harrobia. Domoaren sarreran dago, San Martin auzotik joanda. Ikus daiteke estratifikazioa posizio bertikalean dagoela

Deskribapena

Arro guztiko egitura ikusgarrienetako bat da Ataungo domoa, bai tamainagatik, bai bitxitasunagatik eta kontserbazio onagatik. Eskala kilometrikoko domo bat da, kareharri urgondarrez osatua, eta 1.000 metro baino gehiagoko gailurrak ditu.

“Arrautza-kaxa” motako tolesen interferentzia batek eratzen du egitura. Toles-interferentzia antiklinal baten eta sinklinal baten —biak submeridianoak eta Albiarraren aurrekoak— eta Alpetar fase nagusiko E-W antiklinal ortogonal baten artean gertatzen da.

Domoaren oinarrian, harrobi bat dago, gaur egun itxia. Geruzen antolaera bertikala ageri da, eta errudista handiak dituzten sekzio bikainak ditu.

Behatzeko punturik onena

San Martin auzotik, altuera hartu behar da haranaren beste hegalean.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 9, GIL 83, GIL 87, GIL 106, GIL 112.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 121, GIL 122.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				●
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)		Iraganean ●	Potenziala	Martxan	
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- MAGNA, 114. zk.
- EVE, 114-I zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (2008ko berrargitalpena; 1997an mikrofitxatan argitaratua). *El Manto de los Mármoles (Pirineo Occidental): Geología Estructural y Evolución Geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. 294 or. (1 CD). ISBN: 978-84-9860-178-7.
- Eguiluz, L.; Martínez-Torres, L. M.; Ramón-Lluch, R. eta Zuazo, J. A. (1988). "Deformación y estructuras asociadas en el área de Tolosa (Cuenca Vasca)". Boletín Geológico y Minero, XCIX-I, 59-64.
- Martínez-Torres, L. M.; Morales, T.; Ramón-Lluch, R. eta Ibarra, V. (1988). "Interferencia de plegamientos alpinos en el tercio occidental del Arco Vasco (Cuenca Vasca)". Geogaceta, 5, 5-6.